



# KONTRABANDOA

Eskualdea bi estatutan banaturik izateak, haien arteko muga eta aduanekin, lanbide berria sortarazi zuen: kontrabandoa edo “gaueko lana”. Garaian garaikoa, ipar edo hegoaldera, beharren eta salneurrien arabera eramaten zituztenak mota guztietarikoak izaten ziren, xumeenetatik hasita: kafea, azukrea, txokolatea, ardoa, tabakoa, oihalak... merkantzia konplexuagoekin jarraitzeko: tresnak, lanabesak, ardiak, behiak, zaldiak... bai eta gizakiak berak ere.

# Isilpeko akordio bat

Ba omen zen isilpeko hitzarmen bat “carabineros” eta “douaniers” alde batetik eta mugalariak bertzetik errespetatzen zutena: honen arabera, mendian topo eginez gero, azken hauek utzi egiten zituzten fardelak ihesari emateko. Muga zaindarien ez zuten, horren truke, tiro egiten (airera bakarrik) eta kontrabando-gaiak konfiskatzen zituzten.

Inguru hauek guztiz aproposak ziren “gaueko lanerako”: muga zabala, baso, erreka eta bidexka aunitz, leze eta zulo ugari, kontrabandoa erraz gordetzeko. Sara, Zugarramurdi eta Urdazubiko lezeak elkartzen dituen Pottoka urdinaren bidexkak, kontrabando bide haiek gogora ekartzen dizkigu oraindik.

